



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 24a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Batzarde Negoziatzaileak sinaturiko akordioa, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzekoa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bitartekotza egin dezan Faurecia eta Lear Corporation multinazionalen eta langile-batzordearen artean, ICFri bideragarritasuna eta etorkizun industrialia emate aldera. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Club Atlético Osasuna-ren ondasunen tasazioari buruzkoa. Juan Carlos Longás García jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen aplikatzeko errepideetako radar finko eta mugikorren seinaleztapenari eta bistaratzeari buruz Trafiko Zuzendaritza Nagusiak baliatuko dituen irizpide berriak. Eloy Villanueva Cruz jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, GANASAn sinaturiko enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa. Koldo Amezketa Díaz jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak administrazio eskudunari inoiz eskatu al dion Nafarroako ibaiak drainatzea. Santos Cerdán León jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, 2015. urte honetarako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Reyno Arena Kiroldegiari dagokionez. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (17. or.).

D saila:
HITZARMENAK

Batzorde Negoziatzaileak sinaturiko akordioa, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 45.4 artikulua ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2015eko otsailaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari bidali dio Batzorde Negoziatzaileak sinaturiko akordioa, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzekoa.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 170. artikulua ezarritakoaren arabera, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Batzorde Negoziatzaileak sinaturiko erabakia, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzekoa.

2. Xedatzea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeari buruzko eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Erregelamenduko 172.2 artikuluko bigarren arauak ezarritakoaren arabera egin dadin.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Negoziatzailearen 1/2015 akta

Madriren, 2015eko otsailaren 17an

Estatuko Administrazioaren ordezkariak:

Antonio Beteta Barreda jauna, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Administrazio Publikoetako estatu idazkaria.

Marta Fernández Currás andrea, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Aurrekontuetarako eta Gastuetarako estatu idazkaria.

Miguel Ferre Navarrete jauna, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Ogasuneko estatu idazkaria.

Jaime Iglesias Quintana jauna, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Aurrekontuetarako zuzendari nagusia.

Ángel Rodríguez Rodríguez jauna, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Tributu Administrazioaren Estatu Agentziako Plangintzako eta Erakunde Harremanetako Zerbitzuko zuzendaria.

Diego Martín-Abril y Calvo jauna, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Tributu etako zuzendari nagusia.

Rosana Navarro Heras andrea, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Autonomia eta Toki Erakundeekiko Koordinazioko idazkari nagusia.

Lía Torrente Cobo andrea, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Autonomiei buruzko Finantza Azterlanen zuzendariorde nagusia.

Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak:

Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria.

Carlos García Adanero jauna, "Unión del Pueblo Navarro" parlamentu-taldea ordezkatur.

Juan José Lizarbe Baztán jauna, "Socialistas de Navarra" parlamentu-taldea ordezkatur.

Koldo Amezketa Díaz jauna, "Bildu-Nafarroa" parlamentu-taldea ordezkatur.

Juan Carlos Longás García jauna, "Aralar-Nafarroa Bai" parlamentu-taldea ordezkatur.

Ana Beltrán Villalba andrea, "Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra" ordezkatur.

Miguel Izu Beloso jauna, "Izquierda-Ezkerra" parlamentu-taldea ordezkatuz.

Raúl Goñi Rodríguez jauna, Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoaren zuzendari kudeatzailea.

Madriren, 2015eko otsailaren 17an, 13:00etan, Estatu Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkaritzak bildu dira, gai-zerrendan jasotako gaiari buruz eztabaidatzeko.

Estatuko Administrazioaren izenean, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Plangintzaren eta Erakunde-harremanen Zerbitzuko zuzendaria bertaratu da, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako zuzendari nagusiak horretarako eskuordetuta.

Aipatutako gaien eztabaidaren ondoren, honako erabakiak hartu ziren aho batez.

Lehena:

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onestea, ondoko moduan:

– Bigarren, seigarren, hamalagarren, hogeita zazpigarren, hogeita hamabosgarren, hogeita hamaseigarren, berrogeigarren, berrogeita hirugarren, berrogeita seigarren, berrogeita zazpigarren eta hirurogeita zazpigarren artikuluei eta hirugarren xedapen gehigarriari eman beharreko testu berria.

– Hogeita hamargarren bis, hogeita hamaikagarren bis, hogeita hamaikagarren ter eta hogeita hamaikagarren quater artikulua, hamaikagarren xedapen gehigarria eta hamalagarren, hamabosgarren eta hamaseigarren xedapen iragankorrek gehitzea.

– Hitzarmenaren Legearen aldaketa onesten duen Legean azken xedapen bat txertatzea.

Aldaketaren testua akta honen I. eranskin gisa gehitu da.

Bigarrena:

Aipatutako testu erantsia erakunde eskudunei helaraztea, gero izapidetu dezaten.

Hirugarrena:

Bi ordezkaritzek konpromisoa hartzen dute behar diren jarduketak guztiak egiteko Hitzarmena aplikatzearen ondorioz ematen diren foru arauetatik heldu diren gatazkak gutxitze aldera.

Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren ordezkaritzak konpromisoa hartzen du Nafarroako Parlamentuan behar diren jarduketak

guztiak egiteko, Nafarroako zerga araudia –bereziki, Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea– egokitzeko I. eranskinean jasotako hitzarmenaldaketetara.

I. eranskina

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketak

2. artikulua. Tributu ahalmena.

1.

Aurreko artikulua aipatzen duen tributu ahalmenaz baliatzean, Nafarroako Foru Komunitateak honakoak errespetatu beharko ditu:

a) Nafarroako tributu araubidea Estatu araubide orokorarekin harmonizatzeko irizpideak, hitzarmen ekonomiko honetan ezarritakoak.

b) Hitzarmen ekonomiko honetan xedatutakoaren arabera Estatuarenak diren eskumenak.

c) Estatuak izenpetutako nazioarteko itun edo hitzarmenak, bereziki zergapetze bikoitza saihesteko izenpetutakoak, bai eta Europar Batasuneko zerga harmonizaziorako arauak ere; hitzarmen eta arau horien aplikazioaren ondorioz egin beharreko diru-itzulketak bere gain hartu beharko ditu.

d) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 1. artikuluan ezartzen den solidaritatearen printzipioa.

e) Estatuaren erakunde, ahalmen eta eskumenak, batasun konstituzionalari datxezkionak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Estatu araubide orokorreko legerian xedatutakoaren kaltetan izan gabe, Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmen honetan aipatutakoez beste tributu batzuk ezarri eta arautzen ahal ditu, betiere 1. idatz-zatian jasotako printzipioak eta hitzarmen honen 7. artikuluan aurreikusitako harmonizazio irizpideak errespetatuta.

6. artikulua. Aldaketa

Hitzarmen Ekonomiko honen aldaketa egiteko, hitzarmena egin eta onesteko erabilitako prozedura bera bete beharko da.

Prozedura hori erabili beharko da, halaber, Nafarroako tributu araubidea Estatuak etorkizunean ezartzen dituen tributu berriekin harmonizatzeko.

Estatuak zerga berri bat ezartzeko lege proiektu bat aurkezten duenean, Koordinazio Batzordea biltzeko deialdia eginen da, edo hark eskuordetzen duen azpibatzerdea biltzekoa, Hitzarmena Estatuak ezarri nahi duen zerga berriarekin bat datorren ebaluatu eta azter dezan, Hitzarmenaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako prozedurarekin bat.

14. artikulua. Atxikipenak eta konturako diru-sarrerak zenbait ondare-gehikuntza direla eta.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo errenboltsatzeak eragindako ondare-gehikuntzei dagozkien atxikipenak eta konturako diru-sarrerak Foru Komunitateak eskatuko ditu, bere araudiarekin bat, akziodunak edo partaidetzadunak helbide fiskala Nafarroan baldin badu.

2. Loteria eta apustu zehatz batzuen sarien gaineko zerga bereziari dagozkion atxikipenak Nafarroako Foru Komunitateak eskatuko ditu jasotzaileak ohiko bizilekua edo helbide fiskala lurralde horretan baldin badu.

Atxikipen horiek ordainaraztean, Foru Komunitateak lurralde erkideko tasa berberak aplikatuko ditu.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen direnez bestelako sariei- ondasun, produktu edo zerbitzuen eskaintzarekin lotutako nahiz lotugabeko joko, sariketa, zozketa edo konbinazio aleatorioetan parte hartzearen ondorioz emandakoei, dagozkien atxikipenak eta konturako diru-sarrerak Foru Komunitateak eskatuko ditu, bere araudiarekin bat, horiek ordaintzen dituenak helbide fiskala Nafarroan baldin badu.

Edozein kasutan ere, Estatuako Administrazioak edo Foru Komunitateak ordaindutako sarietan direnean, bakoitzak bereak eskatuko ditu.

27. artikulua. Elkarteen, aldi baterako batasunen eta talde fiskalen tributazio araubidea.

1. Interes ekonomikoko elkarteen eta enpresen aldi baterako batasunen tributazio araubidea Nafarroakoa izanen da horien parte diren entitate guztiak foru araudiaren menpe daudenean.

Entitate horiek beren bazkideei egotziko diete lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren kasuan kasuko zatia, eta haiek zati hori kontuan hartuko dute beren eragiketen proportzioa zehazteko.

2. Talde fiskalen tributazioa zehazteko, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena. Kontsolidazio fiskalaren araubidea Foru Komunitatekoa izanen da sozietate nagusia eta menpeko guztiak foru araudiaren menpe daudenean banakako tributazioaren araubidean, eta lurralde erkideko kontsolidazio fiskalaren araubidea aplikatuko da, berriz, sozietate nagusia eta menpeko guztiak lurralde erkideko tributazioaren menpe daudenean banakako tributazioaren araubidean.

Ondorio horietarako, beste araudiaren menpe dauden sozietateak talde fiskalek kanpo daudela ulertuko da.

Bigarrena. Talde fiskaleko entitate nagusia foru araudiaren menpe dagoenean banakako tributazioaren araubidean, talde fiskalari emanen zaion tratamendu fiskala Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate nagusia duten talde fiskalei ematen zaien berbera izanen da.

Hirugarrena. Edozein kasutan ere, unean unean Estatuak kontzeptu hauen definizioan ezarria duen araudia aplikatuko da: talde fiskala, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, menpekotasun maila eta talde barreneko eragiketak.

3. Zergak bi administrazioei ordaintzen dizkieten talde fiskalen kontsolidazio fiskalaren araubidea aplikatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Lehena. Talde fiskala osatzen duten sozietateek banakako tributazio araubiderako ezarritako aitorpena aurkeztuko dute, arau orokorrekin bat</pt39>.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa galarazi gabe, sozietate nagusiak talde fiskalaren kontabilitateko egoera-orri bateratuak aurkeztuko dizkie bi administrazioei.

Bigarrena. Talde fiskalak administrazio bati edo besteari ordainduko dizkio tributatuak, lurralde batean eta bestean egindako eragiketen bolumenaren arabera.

Ondorio horietarako, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena talde fiskaleko sozietate guztiek egindako eragiketen batura edo metaketa izanen da, taldeen artean kendu beharrekoa kendu aurretik.

30. bis artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean.

1. Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, tributatuak bi administrazioei ordaintzen zaizkien kasuan, 22. artikuluan zergaren kudeaketarako aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

2. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, 23. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatuz eskuduna den administrazioak eginen du zergaren ikuskapen lana.

6. atala

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga

31. bis artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe.

2. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga hau energia elektrikoaren ekoizten duen instalazioa bere lurraldean dagoenean.

Instalazioa Nafarroako lurraldean eta lurralde erkidean dagoenean, baimena emateko eskumena duen administrazioak ordainaraziko du zerga.

3. Zerga honen konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, 2. idatz-zatian jasotako irizpideen arabera.

4. Egin beharrekodiruz itzulketak kasuan kasuko administrazioak eginen ditu, bakoitzari dagokion zenbatekoan.

7. atala

Gastatutako erregai nuklearra sortzearen gaineko zerga, energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboen gainekoa eta gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegitzearen gainekoa

31. ter artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Gastatutako erregai nuklearra sortzearen gaineko zerga, energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboen gainekoa eta gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegitzearen gainekoa ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Hala ere, Foru Komunitateak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe.

2. Gastatutako erregai nuklearra sortzearen gaineko zerga, eta energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboen gainekoa Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzen dituen instalazioa lurralde horretan dagoenean.

Instalazioa Nafarroako lurraldean eta lurralde erkidean dagoenean, baimena emateko eskumena duen administrazioak ordainaraziko du zerga.

3. Gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegitzearen gaineko zerga Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du erregaia eta hondakinak biltegitratuko diren instalazioa lurralde horretan dagoenean.

4. Zerga horien konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, artikuluko honen 2. eta 3. idatz-zatietan jasotako irizpideen arabera.

5. Egin beharreko diru-itzulketak kasuan kasuko administrazioak eginen ditu, bakoitzari dagokion zenbatekoan.

8. atala

Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga

31. quater artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Nolanahi ere, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak ezartzen ahal ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

Horrekin batera, Foru Komunitateak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe.

2. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga hau hirugarrenen funtsak gordetzen

dituzten egoitza zentrala, sukurtsalak edo bulegoak lurralde horretan daudenean.

Bertaratu gabeko merkaturatze sistemen bidez gordetzen diren funtsen gaineko zerga eta lurralde bati atxikitzeko modukoak ez direnen gainekoa Foru Komunitateari esleituko zaizkio, lurraldeari atxikitako gordailuetan duen partaidetzaren arabera dagokion proportzioan.

3. Zerga honen konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, aurreko idatz-zatian jasotako irizpidearen arabera.

35. artikulua. Zerga berezien ordainarazpena.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak Foru Komunitateak ordainaraziko ditu haien sortzapena Nafarroan gertatzen denean.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien itzulketei dagokienez, itzultzeko eskatzen diren kuotak zein administrazioan ordaindu ziren, administrazio harek eginen ditu.

Dena dela, kuotak zein administrazioan ordaindu ziren jakiterik ez dagoenean, itzulketaren eskubidea zein lurraldetan sortu den, horko administrazioak eginen du itzulketa.

Nafarroan kokaturik dauden establezimenduei baimenak emateko eta haiek kontrolatzeko eskumena Foru Komunitatearena izanen da.

Dena dela, gordailu fiskalak baimentzeko, aurretik Estatuko Administrazioari jakinarazi behar zaio.

2. Nafarroako Foru Komunitateak eskatuko du zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia garraiobide horien behin betiko matrikulazioa Nafarroan egiten denean.

Matrikulazioa arlo horren gaineko indarreko araudian ezarritako irizpideei jarraikiz eginen da.

Zehazki, pertsona fisikoek helbide fiskala duten probintzian matrikulatuko dute garraiobidea.

Zerga honen kuotak zein administrazioan ordaindu ziren, harek itzuliko ditu.

5. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak ezartzen ahal ditu, betiere unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateak ikatzaren gaineko zerga berezia eskatuko du haren sorrarazpena Nafarroan gertatzen denean.

Sorrarazpena kontsumoa abian hasten den unean eta tokian gertatu dela ulertuko da.

Kontsumoa abian hasi dela ulertuko da ikatza ekoinzi, erauzi, inportatu edo Europar Batasunean erosi ondoren, lehendabiziko aldiz saldu edo entregatzen denean.

Lehenbiziko salmenta edo entregatzen hartuko dira, orobat, ikatza birsaltzen jarduten duten enpresaburuek egiten dituzten hurrengo entregak, ikatza birsaltzeagatik dagokien salbuespena aplikatu bazaie erosketan.

Kontsumoa abian hasi dela ulertuko da, halaber, ikatzaren autokontsumoa gertatzen denean.

Aurreko lerroaldean aipatutako Europar Batasunaren barreneko ekoizleek edo erauzleek, inportatzaileek, erosleek edo enpresaburuek egiten duten ikatzaren erabilera edo kontsumoa autokontsumotzat hartuko da.

4. Elektrizitatearen gaineko zerga berezia Nafarroako Foru Komunitateak eskatuko du zergaren sorrarazpena Nafarroan gertatzen denean.

Energia elektrikoaren horniduraren kasuan, ulertuko da sorrarazpena gertatu dela eroslea den pertsonak edo entitateak kontsumoa abian jartzen duen unean eta tokian.

Energia elektrikoaren sortzaileek beraiek sortutako Elektrizitatea kontsumitzen dutenean, sorrarazpena autokontsumoaren unean gertatu dela ulertuko da.

5. Foru Komunitateari dagozkion zerga berezien ordainarazpenean, Estatuko lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipioak, arau substantiboak eta formalak aplikatuko ditu Foru Komunitateak.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortzen eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik asko aldentu gabe.

Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak ezartzen ahal ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

3. atala

Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga

36. artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak

teak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateak aitorpena eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik asko aldendu gabe.

2. Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga Estatuara aipatzen dituen amaierako kontsumitzaileek zergaren xede diren produktuak bere lurraldean dauden instalazio, ekipo edo aparatuetan erabiltzen dituztenean.

Berotegi efektuko gas fluordunen autokontsumoa dagoenean, Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga baldin eta autokontsumo hori bere lurraldean gertatzen bada.

Aurreko lerroaldeetan aurreikusi gabeko gainerako kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga zergadunaren establezimendua, zergapeko egintza gertatzen denekoa, bere lurraldean dagoenean.

3. Bidezkoa den itzulketak, berriz, itzultzeko eskatzen diren kuotak zein administrazioetan ordaindu ziren, administrazio harek egiten du.

40. artikulua. Tributuen ordainarazpena eta aplikatzekoa den araudia.

1. Zori, enbido eta ausazko jokoaren gaineko tasa Foru Komunitateak ordainaraziko du zergapeko egintza Nafarroan gertatzen denean.

2. Zozketen, tonbolen, apustuen eta ausazko konbinazioen gaineko zerga tasa Foru Komunitateak ordainaraziko du Nafarroan baimendu behar direnean.

3. Joko jardueren gaineko zerga Nafarroako Foru Komunitateak, Estatu Administrazioak edo bi administrazioek ordainaraziko dute, ekitaldian lurralde bakoitzean izandako eragiketen bolumenaren arabera.

Subjektu pasiboek, helbide fiskala edozein tokitan dutela ere, ekitaldian lurralde bakoitzean izandako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko dizkiote tributuen administrazio bakoitzari.

Ekitaldian lurralde bakoitzean izandako eragiketen bolumenaren proportzioa zehazteko, kontuan hartuko da Nafarroan eta lurralde erkidean egoiliarren diren jokalariek jokatutako zenbatekoen garrantzi erlatiboa.

Proportzio hori aplikatu zaie, halaber, jokalariren egoitza identifikatzeko modurik ez duten joko

modalitateetan lortutako kuota likidoei, bai eta Espainiako lurraldeko egoiliarren ez diren jokalariren kuotei ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, jokalariren egoitza identifikatu gabe egiten diren apustuak, kirol eta ongintzaren arloko elkarrekiko apustuak nahiz estatuko elkarrekiko apustu hipikoetan, zerga Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du apustua egiten den saltokia lurralde horretan dagoenean.

4. Subjektu pasiboek zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioetan aurkeztuko dituzte aitorpen-likidazioak, eta aplikatu beharreko proportzioa eta administrazio bakoitzari dagokion kuota jasoko da beti haietan.

Edozein kasutan ere, zergaren subjektu pasiboek zergak hartzen dituen jardueri buruzko informazio guztia adieraziko dute zergarekin zerikusia duen administrazio bakoitzari aurkeztu beharreko ereduak.

5. Egin beharreko itzulketak kasuan kasuko administrazioek egiten dituzte, bakoitzak dagokion zenbatekoarena.

6. Artikulu honen 1. eta 2. idatz-zatietan aipatzen diren tributuen kasuan, haien baimena Nafarroan eman behar denean, Estatuak zergapeko egintzari eta subjektu pasiboari dagokienez unean-unean ezarritako araudi bera aplikatuko du Foru Komunitateak.

7. Joko jardueren gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak zerga honen tasak handitzen ahal ditu, Estatuak unean-unean ezarritako dituen tasen ehuneko 20, gehienez ere, egoitza fiskala lurralde horretan duten operadoreek, antolatzaileek edo zerga honek hartzen duen jardueran aritzen direnek betetako jardueren kasuan; igoera aplikatuko zaio, soilik, egoitza fiskala Nafarroako lurraldean dutenek jokoan izandako partaidetzari dagokion zerga-oinarriaren zati proportzionalari.

Horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateak aitorpena eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik asko aldendu gabe.

8. Joko jardueren gaineko zergaren ikuskapen lana subjektu pasiboaren helbide fiskala edo haren

ordezkariarena –egoiliarrek ez diren subjektu pasiboen kasuan– zein administrazioetan dagoen, haren organoek eginen dute, horrek galarazi gabe zergarekin zerikusia duten gainerako zerga administrazioen lankidetzara; ikuskapenak administrazio eskudun guztietan izanen ditu ondorioak, haiei dagokien tributazio proportzioa barne.

Nolanahi ere, helbide fiskala Nafarroako lurraldean duten subjektu pasiboen ikuskapena Estatu-ko Administrazioak eginen du kasu honetan: aurreko urtean jokatutako kopuruen zenbateko metatua 7 milioi eurotik gorakoa denean, eta horietatik lurralde erkidean jokatutako proportzioa, 3. idatz-zatian zehaztutako lotura guneei jarraikiz, ehuneko 75ekoa edo handiagoa denean.

Era berean, helbide fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena Nafarroako Foru Komunitateak eginen du kasu honetan: aurreko urtean jokatutako kopuruen zenbateko metatua 7 milioi eurotik gorakoa denean, eta eragiketa guztiak, 3. idatz-zatian zehaztutako lotura guneei jarraikiz, Nafarroako lurraldean eginak direnean.

Ikuskapenaren ondorioa baldin bada ordaindu beharreko zor bat edo itzuli beharreko diru-kopuru bat dagoela, bi administrazioei dagokiena, kobrantza edo ordainketa Administrazio jarduleak eginen du, bien artean egin beharreko konpentsazioak galarazi gabe.

Ikuskaritza eskudunaren organoek beren jarduketan emaitzak jakinaraziko dizkiete ukitutako gainerako administrazioei.

Aurreko lerroaldeetan ezarritakoak ez du ezertan ukatuko Nafarroako Foru Komunitateari bere lurraldean egiaztatze eta ikertze gaietan dagozkion ahalmenak, eta haren jarduketek ez dute ondorio ekonomikorik izanen zergadunetik, administrazio eskudunetako organoen jarduketak direla-eta egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

Egiaztapenetan Administrazio eskudunak ezartzen dituzten proportzioek ondorioak izanen dituzte subjektu pasiboarekiko, likidatutako betebeharreri dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondotik bi administrazioen artean behin betiko proportzioak erabakitzea.

43. artikulua. Desadostasunak eta helbide fiskalaren aldaketa.

1. Lurralde erkideko edo Foru Komunitateko egoiliarrek izan, eta ohiko egoitza batetik bestera aldatzen duten pertsona fisikoek egoitza berriaren arabera beteko dituzte beren tributatu betebeharrak, egoitza berria lotura gunea baldin bada.

Horrez gain, hurrengo idatz-zatian aurreikusitakoa dela eta, egoitza aldaketarik ez dela izan ulertu behar denean, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitortpen osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutza korrituak bertan sartuta.

2. Egiazko tributazio apalagoa lortzea xede nagusi duten egoitza aldaketek ez dute ondorio izanen.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko errentari dagokienez, egoitza berria jarraian gutxienez hiru urtez mantendu ezean, aldaketarik ez dela izan ulertuko da inguruabar hauek tartean direlarik: lehena, egoitza aldaketa gertatzen den urtean edo hurrengoan pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtekoa baino ehuneko 50 handiagoa izatea, gutxienez; bigarrena, aipatutako egoera gertatzen den urtean, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren egiazko tributazioa aldaketa baino lehenagoko egoitzaren lurraldean aplikatzekoa zen araudiarekin bat zegokiona baino txikiagoa izatea; eta, hirugarrena, ohiko egoitza lurralde horretan izatea berriz.

3. Ulertuko da pertsona juridikoaren helbide fiskala ez dela aldatu aldaketaren aurreko ekitaldian edo ondorengoan jarduerarik gabekoak badira edo jarduerari uzten badiote, non ez den kontrakoa frogatzen.

4. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak eta egoiliarrek ez diren entitateen establezimendu iraunkorrak beharturik egonen dira bi administrazioei helbide fiskalaren aldaketak jakinaraztera, zerga eskatzeko eskumenean aldaketak eragiten badituzte.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kasuan, jakinarazpena zergaren aitortpena aurkeztean egin dela ulertuko da.

5. Zergarekin zerikusia duten administrazioetako edozeinek sustatu dezake zergadunaren helbide aldaketa.

Administrazio sustatzaileak besteari igorriko dio proposamena, behar diren aurrekari guztiekin, bigarrenak, lau hilabeteko epean, bere iritzia eman dezan helbide aldaketaz eta ondorioen atzera eragina zein egunetara eraman behar den.

Bigarren administrazioaren erantzuna proposamena berrestekoa baldin bada, Administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Adostasunik ez badago, prozedurari jarraipena ematen ahal zaio artikuluko honen hurrengo idatz-zatian aurreikusitako moduan.

Helbide aldaketaren proposamena igorri aurretik, Administrazio interesdunak helbide fiskala erroldan egiaztatzeko jarduketak egin ditzake, beste administrazioak lagunduta.

Helbidea ofizioz aldatzen bada, bi administrazioak ados jarrita, edo Arbitraje Batzordearen ebazpen baten ondorioz, ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, horrela ezarritako helbide fiskal berria ebazpenaren egunetik aurrera mantenduko dela hiru urtez jarraian.

6. Zergadunen helbideei dagokienez administrazioen artean gerta daitezkeen desadostasunak Arbitraje Batzordeak ebatziko ditu, zergadunei entzutea eman ondoren; halaxe dago aurreikusirik eta arauturik hitzarmen ekonomiko honen 51. artikuluan.

46. artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

1. Egindako atxikipenen eta konturako diru-sarreraren laburpenak aurkeztu beharko dira, dagozkion araudiarekin bat, haietan sartu beharreko atxikipenak eta konturako diru-sarrerak ordainarazteko eskumena duen administrazioan.

Baloreen errenten gordailuak dituzten edo haien kobrantza kudeatzen duten entitateek, kasuko araudiari jarraikiz atxikipenen eta konturako diru-sarreraren urteko laburpenak aurkeztu behar dituztenek, entitate horien egiaztapena eta ikerketa egiteko eskumena duen administrazioan aurkeztu beharko dituzte laburpen horiek, dagozkion araudiarekin bat.

Estatuak eta Foru Komunitateak eskatu beharreko sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diren entitateek Hitzarmen Ekonomiko honen 10.1.f), 12.1 eta 30.2 artikuluetan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako diru-sarreraren urteko laburpenak aurkeztu beharko dituzte, ordainarazteko eskumena duten administrazioek aitortzen aurkezteko tokiaz, moduaz eta epeaz ezartzen dituzten arauekin bat, administrazio bakoitzari aurkeztutako aitortpenean adierazita etekin guztiak eta haiei dagozkien atxikipen guztiak.

2. Tributu arloko informazioa orokorrean emateko betebeharrak, legez eskatzen direnak, betetzeko helburua duten aitortpenak Estatu Administrazioan edo Foru Komunitatean aurkeztu beharko dira, zein bere araudiarekin bat, irizpide hauei jarraikiz betiere:

a) Enpresa eta lanbide jarduerak egiten dituzten tributudunen kasuan, jarduera horiek ikuskatzeko eskumena duen administrazioan.

a) Enpresa edo lanbide jarduerarik egiten ez duten tributudunen kasuan, helbide fiskala non duten, lurralde erkidean edo Foru Komunitatean, bertan eginen dute.

Aurreko letretan xedatutakoaren ondorioetarako, jaraunspen jasogabeak, ondasun-komunitateak edo nortasun juridikorik gabeko bestelako entitateak direnean, aitortpen horiek aurkeztu beharko dira, halaber, haien kideek edo partaideek helbide fiskala non duten, administrazio horretan.

3. Errolda izaerako aitortpenak, berriz, horiek egiteko betebeharra duenaren helbide fiskala non dagoen, bertako administrazioan aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko araudiarekin bat, eta, horrez gain, pertsona edo entitate horrek aitortpen hauetako bat zein administrazioan aurkeztu behar duen, horretan ere, hitzarmen ekonomiko honetan aurreikusitako arauekin bat:

a) Atxikipenen eta konturako diru-sarreraren aitortpena.

b) Sozietateen gaineko zergaren aitortpen-likidazioa.

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpen-likidazioa.

d) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aitortpena.

47. artikulua. Enpresen bat-egiteak eta zatiketak.

Sozietate europar baten edo sozietate kooperatibo europar baten bat-egiteei, zatiketeei, aktibo ekarpenei, balio trukaketari eta helbide sozialaren aldaketari, Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera, aplikatzekoa zaion zerga araubide bereziak eduki bera izanzen du Nafarroako Foru Komunitatean onetsitako araudian eta lurralde erkideko araudian.

67. artikulua. Koordinazio Batzordea.

1. Koordinazio Batzorde bat eratuko da, kide hauekin:

a) Estatu Administrazioaren sei ordezkari.

b) Foru Komunitatearen sei ordezkari, Nafarroako Gobernuak izendatuak.

2. Koordinazio Batzordeak eskumen hauek izanzen ditu:

a) Foru araubidea eta Estatu zerga-esparrua egitura nahiz eginkizun aldetik modu egokian uztartzeko bidezko hartzen diren azterlanak egitea.

b) Administrazio eskudunei jarduketarako irizpide uniformeak, planak eta informatika programak ematea.

c) Ikuskapenaren arloan Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen artean sortzen diren kasuak edo gaiak aztertzea.

d) Ogasuneko Ministerioak, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta Arbitraje Batzordeak eskatutako txostenak egitea.

e) Tributuen ondorioetarako balorazio arazoak aztertzea.

f) Tributu arloko araudia onetsi aurretik Hitzarmen Ekonomikoarekin bat datorren ebaluatzea.

Ondorio horietarako, arau xedapenen proiektuak elkar trukatzearen ondorioz, haietan jasotako proposamenei buruzko oharra egiten direnean, bi administrazioetako edozeinek eska dezake, idatziz eta arrazoiturik, batzordea biltzeko deialdia egiteko, tributu arloko araudiaren edukiari dagokionez egon daitezkeen desadostasunak bideratzeko helburuarekin.

g) Hitzarmen ekonomikoan dauden lotura guzueen aplikazioaz sortzen diren kontsultei erantzuna ematea.

Kontsulta horiek Administrazio jasotzaileak igorriko ditu beste administrazioa, azter ditzan, ebazpen proposamenarekin batera, jaso eta bi hilabete epean.

Hurrengo bi hilabeteetan oharrik egiten ez bada ebazpen proposamenari buruz, onetsi egin dela ulertuko da.

Oharra badaude eta onartzen ez badira, Koordinazio Batzordean adostasuna lortu ahal izanen da.

Nolanahi ere, ohar horiek egiten direnetik bi hilabete iraganik haien gaineko adostasunik lortu gabe, Koordinazio Batzordeak eta zerikusia duen beste edozein administrazioek desadostasun hori eraman dezake Arbitraje Batzordera bi hilabete epean.

h) 59. artikulua aipatzen duen ekarpen ekonomikoa, oinarritzat hartzen den urtekoa eta bosturteko bakoitzeko gainerako urteetakoak, bi administrazioei igortzeko, behar den erabakia har dezaten.

i) Bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen kopuruaren eguneraketa finkatzea, bi administrazioek onetsi dezaten.

j) Hitzarmen ekonomiko honen 65. eta 66. artikuluetan araututako zeharkako zergen ondoriozko doikuntzak zenbatetsi eta likidatzeko metodoa ezartzea.

k) Nafarroako Foru Komunitateak poliziaren arloan betetzen dituen eskumenen kostuaren urteko balorazioa, behin-behinekoa eta behin betikoa, zenbatestea.

l) Aurrekontu egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinaziorako konpromisoak erabakitzea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako moduan.

3. Koordinazio Batzordea urtean bi aldiz bilduko da gutxienez, seihileko natural bakoitzean behin, eta, horrez gain, batzordean ordezkariak duten administrazioetako batek eskatzen duenean.

4. Koordinazio Batzordeak azpibatzerdeak sortzen ahal ditu, artikulua honen 2. idatz.-zatian jasotako eskumenez baliatzea eskuordetzeko.

Azpibatzerde horietan administrazio bakoitzak hiru ordezkari izanen ditu, eta komeni iruditzen zaizkion aholkulariak ere izan ditzake, hitzarekin baina botorik gabe; bertan hartutako erabakiek ondorioak izanen dituzte hartzen diren unetik bertatik, horrek galarazi gabe ondoren Koordinazio Batzordeak berrestea.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Estatuaren zerga arloko antolamendu juridikoa aldaketa funtsezkoa gertatzen bada, bi administrazioek, elkar hartuta, hitzarmen hau egokituko dute egindako aldaketetara, eta, beharrezkoa bada, dagokion bost urteko oinarri-urteko ekarpen likidoa berrikusiko dute, bidezkoak diren moduan eta zenbatekoan, aipatutako aldaketak indarra hartzen duen unetik aurrera ondorioak izateko.

Hamaikagarren xedapen gehigarria.

1. Tributudunak Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitatekoak eskatu ahal dizkion tributu zorrak osorik edo zati batean azkentzeko eska dezake, beste administrazioan egiaz ordaindutako zorraren zati baliokidea alegia, inguruabar hauek daudenean:

a) Modu sinesgarrian frogatzea zeharkako zergen autolikidazioetan jaso direla eragiketa ekonomiko bakar bati dagozkion kuota sorraraziak, Estatuko Zerga Administrazioan edo Foru Komunitatekoan, diru-sarrera eskatzen dionaz beste batean.

Ordaindu beharreko autolikidazioen kasuan, autolikidazioaren emaitzaren ordainketa frogatu beharko da, Administrazio bakoitzaren tributu arloko araudi orokorrean aurreikusitakoarekin bat.

Ondorio horietarako, diru-sarrera zergadunak berak egin izan daiteke, edo sozietate multzo berekoa izateko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen ezaugarriak dituzten beste entitate batzuek egin, egoitza zein den eta urteko kontu bateratuak egin beharra alde batera utzita.

b) Tributu zorraren jatorria zeharkako zergen esparruan bidegabeki lortutako kuota murriztuak edo itzulketak izatea, egiaztapeneko jarduketaren bidez erregularizatuak eta 600 milioi euroko zenbatekotik gorakoak.

c) Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko eskumen gatazka aurkeztu izana Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordean, eta hori ebaztean zehaztu ez izana gaiarekin zerikusia zuten administrazioen eskumena.

d) Diru-sarreran eta/edo itzulketaren eskaeran zergadunaren edo bere taldearen jarduketa bat egotea, zehagarria ez dena, tributu administrazioetako batek tributu arloko betebeharra erregularizatzeko jarduketa administratiboak hasi aurrekoa.

Aurreko leerroaldean xedatutakoak ez du galaziko tributu administrazioetako edozeinek bidezkoa den erregularizazioa egitea.

e) Diru-sarrera egin duen entitateak, tributudunak edo bere sozietate multzoak, a) letran adierazitako moduan, uko egitea berariaz bidegabeko diru-sarreraren itzulketarako eskubideari diru-sarrera egin zuen administrazioan, bai eta hasiera batean ordaindutako likidazioaren kontra aurkeztutako edo aurkez ditzakeen errekursoei edo erreklamazioei.

Administrazio horrek ziurtagiri bat emanen du, bidegabeko diru-sarreraren itzulketarako eskubideari eta likidazioaren kontrako inolako errekurso edo erreklamazio aurkezteari uko egin izana jaso duela adierazten duena, a) letran xedatutakoa betetzen dela egiaztatuz eta xedapen honetan aitortzen diren ondorio juridikoei adostasuna emanez.

Administrazio jardulearen erabakiak adieraziko du tributu zorra azkendu dela dagokion zatian aurretik ordaindutako zenbatekoarekin, aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Estatuko Administrazioaren barruan, erabaki hori emateko eskumena Zerga Administrazio

Agentziako Diru-bilketaren Departamentuko zuzendariarena da.

Foru Komunitatean, erabaki hori emateko eskumena Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailearena da.

2. Zergadunaren tributu betebeharra azkentzen denean aurreko baldintzak betetzeagatik, sortutako eskumen gatazka, c) letran aurreikusitakoa, amaitu egiten da, eta administrazioen artean ez da inolako erreklamaziorik eskatzerik izanen arrazoi horregatik.

Hamalagarren xedapen iragankorra.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanen dituzten tributu berrien araubide iragankorrak arau hauek izanen ditu:

Lehenbizikoa. Nafarroako Foru Komunitatea Estatuko Ogasun Publikoaren tributuen arloko eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, xedapen honetan aipatzen diren tributuen kudeaketari, ikuskapenari, berrikuspenari eta diru-bilketari dagokienez.

Halere, Estatuko Ogasun Publikoa baliatuko da aurreko eskumen horietaz lege honek indarra hartu aurretik jarduketak eginak baditu zergadunekin, lege honen 31.bis artikuluan jasotako zergaren inguruko jarduketak, betiere.

Eskumen horiek mugatuta egonen dira egindako jarduketek eragiten dieten ekitaldietara.

Bigarrena. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago likidatu eta hartutako zenbatekoak, xedapen honetan aipatzen diren tributuek hitzarmenean jasota egonez gero Nafarroako Foru Komunitateak jasoko zituenak eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindutakoak, Foru Komunitatearenak izanen dira osotara.

Hirugarrena. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago sortutako zenbatekoak, ikuskapen lanen ondorioz egun horretatik aurrera likidatutakoak, xedapen honetan aipatzen diren tributu irizpideak eta lotura guneak aplikatuz banatuko dira.

Laugarrena. Bidezkoa denean, egindako edo egin behar ziren likidazioei dagozkien itzulketak, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak, sorrazpenaren egunean eskumena zuen Administrazioak eginen ditu, xedapen honetan aipatzen diren tributu irizpideekin eta lotura guneekin bat.

Bosgarrena. Nafarroako Foru Komunitateak emandako egintza administratiboaren kontrako erreklamazioa aurkezten ahal da bide ekonomiko-administratiboan lurralde horretako organo eskudunetan.

Estatuko Administrazioak emandakoen kontrako erreklamazioak, aldiz, zein den ere haien data, Estatuko organo eskudunetan aurkeztuko dira.

Halere, aurreko arauen arabera hartzekodun suertatzen den Administrazioari esleituko zaio dagokion diru-sarrera.

Seigarrena. Tributu arloko arau-hausteen kalifikazioaren ondorioetarako, bai eta kasu bakoitzean dagozkion zehazpenetarako, balio eta eraginkortasun osoa izanen dute xedapen honetan jasotako tributuen arautzeak indarra hartu aurretik Estatuko Ogasun Publikoan zeuden aurrekariak.

Zazpigarrena. Xedapen iragankor honetan aipatzen diren tributuen hitzarmenak indarra hartzeak ez ditu ezertan kaltetuko zergadunek egun horren aurretik emandako legeen arabera eskuratutako eskubideak.

Hamabosgarren xedapen iragankorra.

Kirol eta ongintzaren arloko elkarrekiko apustuak nahiz estatuko elkarrekiko apustu hipikoak hartzen dituen joko jardueren gaineko zerga Estatuko Administrazioak ordainaraziko du, merkaturatzea Estatuko Loteria eta Apustuen Estatuko Sozietateak egiten badu, baina horrek ez du ukatuko Nafarroako Foru Komunitateari finantza konpentsazioa ematea, saltokia zein lurraldetan

dagoen, lurralde hori hartuta lotura gune gisa kalkulatuta.

Estatuko Loteria eta Apustuen Estatuko Sozietateak urteko informazio aitortpenak aurkeztuko ditu, jokaturako zenbatekoetatik Nafarroari egotzi beharrekoen gainekoak, Hitzarmen Ekonomikoaren 40.3 artikuluekin bat.

Hamaseigarren xedapen iragankorra.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onetsi zuen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Hitzarmen Ekonomikoaren jatorrizko testuaren 36. artikulua indarra izanen du 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, zenbait hidrokarburoren gaineko txikizkako salmenten gaineko zergari dagokionez, preskribatu gabeko ekitaldiei dagokionez.

Azken xedapena. (Hitzarmenaren aldaketa onetsiko duen legean sartzekoa).

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Lege honen bidez Hitzarmen Ekonomikoan egindako aldaketaren ondorioz adostutako tributuetak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeak direla ulertzen da.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bitartekotza egin dezan Faurecia eta Lear Corporation multinazionalen eta langile-batzordearen artean, ICFri bideragarritasuna eta etorkizun industriala emate aldera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bitartekotza egin dezan Faurecia eta Lear Corporation multinazionalen eta langile-batzordearen artean, ICFri bideragarritasuna eta etorkizun industriala emate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Hala ere, mozioa otsailaren 23ko Mahaiaren eta Eledunen Batzarrean urgentziaz izapidetzea eskatzen dute, otsailaren 26ko Osoko Bilkuran eztabaidatu ahal izateko.

Faurecia eta Lear Corporation multinazionalen zuzendaritzak alde bakartasunez erabaki du Burlatako lantegia osorik eta berehala ixtea, eta multina-

zional horien zuzendaritzarekin egindako bileretan, zeinetan Nafarroako Gobernuak ere parte hartu baitu, ezinezkoa izan da lantegiaren iraupena bermatzeko inolako akordiorik lortzea. Gauzak horrela, behean sinatzen dugun parlamentu-taldek uste dugu beharrezkoa dela Parlamentuak bere babesa adieraztea, Burlatako lantegi horren jardueraren iraupena ahalbidetzeko eta bertan lan egiten duten pertsonen 189 lanpostuen aldekoa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bitartekotza egin dezan Faurecia eta Lear Corporation multinazionalen eta langile-batzordearen artean, ICFri bideragarritasuna eta etorkizun industriala emate aldera.

- Nafarroako Parlamentuak VW Navarrari eskatzen dio Faurecia multinazionalarekiko bitartekotza egin dezan, ICFk hornitutako produktuaren kalitatearen kariaz eta Faurecia-Burlada lantegia VW Pamplonarekin duen gertutasunaren kariaz, ICFk VW Polo-ren egungo modelorako egiten duen "Corredera PQ25" produktua jasotzen jarraitze aldera, bai eta, ahal izanez gero, Landabengo plantan etorkizunean eginen diren modelo berrietarako ere.

- Faurecia eta Lear Corporation multinazioalei eskatzen zaie Industrias Cousin Frères-eko langile-batzordearekin lan egin dezaten, enpresa hori berriro ere jartzearren bideragarritasunaren eta etorkizun industrialaren bidean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 20an

Foru parlamentariak: Roberto Jiménez Alli, Bikendi Barea Aiestaran, Txentxo Jiménez Hervás eta José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren ondasunen tasazioari buruzkoa.*JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasuna-ren ondasunen tasazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du otsailaren 26ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Jakin izan dugunez, Foru Ogasunak onartu egin du Club Atlético Osasuna-ren ondasunen tasazioa, 43 milioi eurokoa. Antza denez, zenbateko hori bat dator klubak egindako estimazioarekin; Ogasunak egindako estimazioa, berriz, 35,7 milioi eurokoa zen. Desadostasun hori ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Zeri zor zaio Ogasunak hasieran egindako estimazioaren eta azkenik onartu duenaren arteko aldea? Zer balorazio elementu, faktore edo burubidek eragin dute irizpide-aldaketa?

Iruñean, 2015eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen aplikatzeko errepideetako radar finko eta mugikorren seinaleztapenari eta bistaratzeari buruz Trafiko Zuzendaritza Nagusiak baliatuko dituen irizpide berriak.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen aplikatzeko errepideetako radar finko eta mugikorren seinaleztapenari eta bistaratzeari buruz Trafiko Zuzendaritza Nagusiak baliatuko dituen irizpide berriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak 2015eko otsailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aplikatzeko errepideetako radar finko eta mugikorren seinaleztapenari eta bistaratzeari buruz Trafiko Zuzendaritza Nagusiak baliatuko dituen irizpide berriak? Baiezkoan, noiz eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2015eko otsailaren 20an

Foru Parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, GANASAn sinaturiko enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, GANASAn sinaturiko enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Esparza kontseilariak heldu den otsailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, 32 familiari eragin zien enplegu erregulazioko espedientea sinatu baitzuen GANASAn:

• Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du operazio horri buruz, zeinak kostu sozial handia, zuzenbide-arloko prestigio-galera handia eta beharbada kostu ekonomiko handia izan baitzuen? Zer erantzukizun hartuko du bere gain?

Iruñean, 2015eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak administrazio eskudunari inoiz eskatu al dion Nafarroako ibaiak drainatzea.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak administrazio eskudunari inoiz eskatu al dion Nafarroako ibaiak drainatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den otsailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak administrazio eskudunari inoiz eskatu al dio Nafarroako ibaiak drainatzea?

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, 2015. urte honetarako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Reyno Arena Kiroldegiari dagokionez.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2015. urte honetarako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Reyno Arena Kiroldegiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iazko martxoan, Gizarte Politiketako kontseilariak iragarri zuen iazko irailerako jakinaraziko zela Reyno Arena Kiroldegia inauguratzeko data. Orobat azaldu zituen hasierako proiektuan egindako zenbait aldaketa.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

Gobernuak zer asmo ditu, Reyno Arena Kiroldegiari dagokionez, 2015 honetarako? Zein da kiroldegiaren mantentze-lanen kostua, kiroldegia irekitzen bada edo irekitzen ez bada? Zer inbertsio ematen duzue baztertutzat kiroldegi horretan? Zer kalkulu ekonomiko egiten duzue kiroldegiaren kudeaketari dagokionez?

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónnek

